



BARREN
TOKIKOM


Erreka-zuloetan behera zuzen



Maiatzaren 2tik 12ra

Batxilergorako Eskaintza 2016-2017

Zientziak eta Teknologia
Giza eta Gizarte Zientziak
Artezkoa



943 12 16 98
azitain@lasalle.es

Web: www.lasalleeibar.com
Twitter: @LaSalleEibar



ANA ALBERDI



“Kate handietan erosten dugun kamiseta bakoitzaren atzean esplotatuta bizi den pertsona bat dago”

Kaixo Eneko!. Duela pare bat aste lagun batek eta biok proiektu berri bat jarri dugu martxan. Moda jasangarria bultzatzeko asmotan, bion artean sortutako blogean (www.deuxminutesplus.com) Euskal Herrian sortu eta ekoizten diren marken berri emango dugu elkarrizketa batzuen bitartez. Duela zenbait aste idatzi genuen zutabearen *fast-fashion* sektorearen inguruan hitz egiten bagenuen, oraingo honetan *slow-fashion* deritzon sektoreari eutsi nahi diot.

Ezagutzen ez duenarentzat, *slow-fashion* sektoreak bertako moda jasangarria bultzatzen du. Sortze eta ekoizte prozesua bertan egiten duten enpresen aldekoa da mugimendu hau. Deskokatuta dauden enpresek ez bezala, bertako jendea kontratatzen dute jantziak sortzeko, horrela, bertatik bertakoentzat den moda modu bat sortuz. Askotan, material organikoak eta naturarekiko osasun-

tsuak direnak erabiliaz. Presaka bizitzeari uko egiten diote; ez dira tendentzien zaleak askotan. Denbora luze batean izan dezakezun jantzienganako apustua egiten dute marka hauek.

Alderik txarrena? Prezioa. Ohituta ez gauden prezioak dituzten moda egiteko filosofia babesten dute markak. Baina jarri al gara inoiz pentsatzen hori dela jantzi baten prezio justua? Jarri al gara pentsatzen kamiseta baten atzean dagoen lan guztia, modu duinean ordaintzeko, guk ere gehiago ordaindu behar dugula?

Nik uste dut oraindik ez garela puntu horretara iritsi, modu egoistago batean pentsatzen dugula oraindik. Bi galiza bakero on izatea baino nahiago dugula kalitate txarreko zortzi izatea. Espero dudana gauza bakarra da, Eneko, gutxinaka-gutxinaka gizartea konturatzen joatea, kate handietan erosten dugun kamiseta bakoitzaren atzean esplotatuta bizi den pertsona bat dagoela.



ENEKO ITURBE



“Egia da, moda jasangarria ‘modan’ dago”

Epa Ana!. Egia esan, ez dut estreinatu berri duzuen blogaren berririk, baina lasai, botako diot begiradaxo bat egun hauetako batean, ea marka ezagunik aurkitzen dudan bertan! Asko pozten nau zuen inizatibak; izan ere, Euskal Herrian ez dago moda enpresa gehiegi, zoritxarrez, eta zuen blogaren bitartez gehiago ezagutarazi daitezke azken hauek.

Zer esango dizut ba nik! Dударik gabe, zurekin ados nago, moda jasangarriak baduelako, zuk esan bezala, bere alde onik: bertako errekurtsuak erabiltzen ditu, kate motzeko ekoizpenean lan egiten dute, eskuz egindako produktuen kutsua izaten dute, eta, inongo zalantzarik gabe, xarma berezia duten produktuak edo jantziak izaten dira, normalean serie oso murriztua edo pieza bakarrek lanak izaten direlako.

Euskal Herrian bertan badago ildo honetan lan egiten duen profesionalik. Azken hauek, batez ere, egun berezietarako arropa lantzen dute: ezkontzetarako jantziak, umeen arropa, baserriar jantziak eta soinekoak, osagarriak... Baina, hala ere, aitortu behar dut errealitatean apenas ezagutzen ditudala egunero erabiltzeko

arropa lantzen duten enpresak, mutilentzat zein neskentzat.

Moda jasangarriaren alde txarrenaren inguruan diozunaz, pare bat hitz: pena ematen badit ere, ulergarria deritzot; izan ere, egunero nabil zenbaki artean, eta badakit prezioan zein alde dagoen Txinan edo hemen eginiko bi soineko berdinen artean. Errealitateak erakusten digu, aldiz, prezioan ikarragarritzko ezberdintasuna eduki arren, kalitatean apenas igartzen dela alde hori.

Egia da, moda jasangarria *modan* dagoela, eta ni aldekoa naiz. Gainera, badauzkat multzo honetan kokatu daitezkeen hainbat pieza, baina kontzeptu hau askotan faltsua dela ere kontuan hartu behar da: kontzeptu hau gaizki erabiltzen da, eta diseinatzailerak horretaz aprobetxatzen dira. Esaterako, ez dituzte detalletan zaintzen, altuegiak diren prezioak dituzte, askotan ez dute produkzio katearen kontrolik... Niretzako, beraz, eskaintzen dutena ez da ez argia ezta garbia ere.

Ez al da “moda jasangarria” negozio berri bat egiteko eslogan perfektua? Ez daukat guztiz argi; ea zure blogak konbentzitzen nauen.



David Hilbert matematikari haundi bat izan zan. 1862xan Königsbergen jaixo eta 1943an Göttingenen hil zana. Gaurko Alemanian. Hilberten garaiko ezagutza zientifikua inguruko ildo filosofiko baten arabera baziran egixak izanda ere iñoiz ezagutuko ez ziran gauzak. Ez zan hori Hilbertek matematikarako eta natur zientzietarako gordetzen zaban ikuspegixa. Bere ustez egixa zan edozer ezagutzera ailegatzia posible zan alor hauetan. "Wir müssen wissen, wir werden wis-

Wir müssen wissen, wir werden wissen

sen" idatzi eragin zaban bere hillarrixan: "Jakín bihar degu, jakingo degu". Göttingenera juten bazerate ez ahiztu hilerri zaharra bisitatzia.

Hilbert hiltzerako, baiña, Kurt Gödel logikari austriarrak ezagun egingo zaban emaitzak aurkeztu zittuan ("ezagun, ezagun..." esango diazue, baina segi daigun). Honen arabera matematikan ba ei daude "erabakieziñak"

*"Goldbachen konjekturia
esaten jako
1742tik planteatuta
baiña soluziorik gabe
segitzen daban
problema bati"*

diran baieztapenak. Eta, honenbestez, ezagutueziñak. Ez baitzan edozerekin konformatzekua, adibidiak ere jarri zittuan.

Goldbachen konjekturia esaten jako 1742tik planteatuta baiña soluziorik gabe segitzen daban problema bati. Bi baiño haundixagua dan edozein zenbaki bikoiti (4, 6, 8, 10...) bi zenbaki lehenen (2, 3, 5, 7, 11, 13...) batura moduan (errepikatzea posible izanda) eman leikela esaten zaban Goldbachek: $4=2+2$, $6=3+3$, $8=3+5$, $10=5+5$, $12=5+7$, $14=3+11$, $16=11+5$... Demostratu ezker konjekturia teorema bihurtuko litzake. Kontrako adibide bat nahikua litzake, oster, ahiztuta ezerezian desagertzeko. Dirutzak eskaiñi arren problemiak zabalik segitzen du. 4 trilloi zenbakira arte kasu guztiak betetzen diala konprobatu dabe. Baina froga orokor eta definitibo baten arrastorik ez. Erabakieziña ete da ba?



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBAR
Euzko Legearen Argitaratzailea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskuiztak ataletan adierazitako enantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zaloa Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enetx Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
b 21 1433



Gizartearen eta Kulturaren Saila



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ESKERRAK

Asteburuan antolatu genduan *Etxebizitza Plazara!* Ekimenak agerixan laga dau beste behin ere Elgoibarren etxebizitzaren inguruan daukagun egoeria eta hau aldatzeko neurriak hartu biharra. Kontua lehen lerruan jarri dogulakuan gaiztoz honenbestez, eta ilusioz lanian segiko dogu aurrerantzian ere.

Ekimenak lan eta denbora dexente eskatu digun arren, merezi izan dabalakuan gaiztoz. Askok ikasi genduan Errekaletan Auzo Askeko Amaiaren eta Azpeitiako Bizi Dinamikako Yuri eta Bilintxen esperientziekin. Gau magiko bat bizitzeko aukeria ere izan genduan herriko musikarixekin: Abianeko Gabi Agirregomezkorta eta Alfonso Guillo, Dardara Akustikeko Garazi Ayesta eta Xabi Larrañaga, Iban Urizar *Amorante* eta Iñaki Larrañagari eskerrak ematia baiño ez dagokigu. Gaur espero baino gehiago luzatu zala kontzientzia gara, eta iñori lua galarazi bagenion berriaz barkamenak! Baita bestelako enduririk sortu bagenduan ere.

Logistika lanetan lagundu ziguten

Ainhoa Mendibil eta Ander Izagirri ere milesker zuen eskuzabaltasunagatik; baita ezker abertzaliari ere musika ekipua lagatziarren, Gazte Asanbladari gaztetxeko materiala erabiltzeko aukera ematzen, eta brigadiari argindarra erreziarren.

Azkenik, ekimenera hurbildu zirenen edo era batera edo bestera zuen babes eta interesa agertu diguzuen guztioi ere gure esker ona helarazi eta bildutako indarrek abiatuta lanian jarraitzeko gonbidapena luzatu nahi dizuegu.

Alternatibak badaude, jaiki eta eraiki daiguzen!

Jaiki

► BARKAMEN ESKEA

Joan den asteburuko Atxutxiantxixika ekimenaren berri ematean, akats bat egin genuen komunikatzeko erabiltzen ditugun zenbait lekutan, eta Atxutxiantxixika zapatuan izan zela jakinarazi genuen. Ekitaldia, baina, domekan izan zen. Hankasartzeak ez du bueltarik, eta badakigu baten baino gehiagoren planak zapuztuko genituela. Beraz, han-

kasartzearen ondorioz, zapatuan Kalegoen plazara agertu ziren gurasoei eta umei barkatzeko eskatu nahi dizuegu.

Atxutxiamaiak

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakunde zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleeraz datorren eskutitz argitaratuko.



Haurreskolak

Matrikulazio epea zabalik maiatzaren 2tik 11ra

Elgoibarko Haurreskola 943 742 141

Herritarren beharretara egokitutako etxebizitza politika egiteko eskatu dio Jaikik Elgoibarko Udalari

Elgoibarko gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten zailtasunak direla eta, bi eskakizun egin dizkio Jaikik Udalari. Batetik, Elgoibarren etxebizitzaren inguruko diagnostiko sakon bat egin dezala gaia lantzean abiapuntu egoki bat izateko. Bestetik, herritarren beharretara egokituko den etxebizitza politika bat martxan jartzeko eskatu dio, "gai hau Udalaren ardura ere baden heinean".

Elgoibarko Jaiki taldeak *Etxebizitza plazara!* ekimena egin zuen aurreko asteburuan. Elgoibarko etxebizitzaren egoera zein den aztertu eta proposamenak lantzeko asmoz, Kalegoen plaza hartu zuen Jaikik, gazteek emantzipatzeko dituzten zailtasunak elgoibartarrei ikusarazteko.

Jaikiren arabera, etxebizitzaren gaia lantzen hasi zirenean diagnostiko eguneratu baten falta igarri zuten Elgoibarren. Oztopo horrez gain, arazoaren larritasuna erakusten duten hainbat datu esanguratsu lortu dituztela nabarmendu zuten. "Elgoibarren 732 etxe huts egotearena da zifra esanguratsuenetarikoa", adierazi zuten. "Ulertezina da



2001etik hona 1.000 etxe baino gehiago eraiki izana eta are ulertezinagoa Plan Orokorrek datozen urteetarako beste 1.200 inguru sortzeko plana".

Alokairu eskaintza txikia eta garestia dela azaldu du Jaikik. "Arrazoi horiengatik guztiengatik nabarmenak dira gazteek gaur egun etxebizitza bat lortzeko ditugun zailtasunak, eta horren ondorio da, gazteen emantzipaziorako batez besteko adina 31 urtera heldu izana".

Jaikik herritarrak eta gazteak ere inplikatu nahi ditu arazo honi irtenbideak emateko ahaleginean. "Indarrak elkartu eta alternatibak eraikitzeke unea da", adierazi zuten. "Beste etxebizitza eredu bat posible da, Elgoibarren bertan izan genuen Leruntxikiko okupazioaren esperientzia. Bide horretan, Jaikik egoera hau aldatzeko baliagarriak izango diren egitasmoak babestu eta zilegitasuna onartuko die", taldearen arabera.

Hondakinen bilketa sisteman hobekuntzak martxan jartzea eta sentsibilizazioa areagotzea eskatu dio EH Bilduk Mankomunitateari



Bilketa sistema hobetzeko pausoak ematea eta kontzientziazioa areagotzea eskatu du EH Bilduk Debabarreneko Mankomunitatean. Hori gauzatzeko lan-talde bat eratzeko proposamena egin du EH Bilduk. Zinegotziek, teknikariek eta herritarrek parte hartuko lukete. "Guztionean elkarlan eta partehartzearekin askoz ere emaitza hobekak lortuko genituzke", adierazi du koalizioak prentsaurrekoan. 2015ean %39,66ko birziklapen tasa izan zen eskualdean. "Mankomunitateak 2016rako adostutako %60ko helburua ez dugu lortuko beraz", adierazi du EH Bilduk. "Argi dago aldaketa esanguratsuak eman ezean ez dugula helburua beteko", uste du.

Euskaraz lan egiteko ikastaroa antolatu dute hizkuntza ezagutzen ez dutenentzat



Aiurri

Euskara ikastaroa antolatu dute Elgoibarko Udalak eta Banaiz Bagara elkarteak batez ere migratzaileentzat. Ostalaritzan, merkataritzan, pertsonen zaintzan edota industrian aplikatzeko ikastaroa da. Euskararik ezer ez dakiten horiei gutxieneko ezagutza batzuk eskainiko dizkie ikastaroak. Ikastaroa praktikoa izango da. 20 orduz (maiatzaren 23tik ekainaren 3ra) oinarriko hiztegia landuko dute, eta lan-munduko komunikazio egoeren simulazioak landuko dituzte; hartara, bezeroaren hizkuntzaren arabera erantzuten, jarrera positiboak azaltzen, lan-talde bat antolatzen eta agindu errazak ulertzen ikasiko dute. Kontzientziazio lana ere landuko dute. Informazio gehiagorako eta izena emateko, Udaleko Euskara sailera (943 744 366) jo daiteke.

Euskararen transmisioari buruz arituko da Deñe Zabalo Eibarren

Elgoibar Ikastolako Guraso Kontseiluko Deñe Zabalo euskararen transmisioari buruzko mintegi batean hitz egingo du maiatzaren 3an Eibarren, Eta Kitto! euskara elkarteak antolatutako mintegian. Gurasoei zuzendutako *motibazio ekimena: bizia delako!* izango da elgoibartarraren hitzaldiaren izenburua. Guraso Kontseiluko euskara taldea gurasoak kontzientziazteko egiten ari den lanaren inguruan jardungo du. Mintegian, besteak beste, UEMAko Xabi Aizpuruak, Jon Maia bertsolariak eta UPV/EHUko Estitxu Garaik parte hartuko dute.

Bihar, edoskitze tailerra Kultur Etxean

Maitasunez Hezi taldeak bihar (zapatua) edoskitze edo laktantzia tailerra egingo du Elgoibarko Kultur Etxean. 11:00etatik aurrera, amatasunak berak eragiten dituen zalantzak, bizipenak eta informazioa partekatuko dira. Familietako edozein kide dago gonbidatuta. Parte hartzeko asmoa dutenek aldeztu aurretik jakinarazteko eskatu dute antolatzaileek. Horetarako, 636 916 556 edo 665 733 809 telefonora deitu daiteke edo maitasunezhezi@hotmail.com helbidera idatzi.

**ETXETRESNEN
RENOVE PLANA 2016**

Hasiara: Maiatzaren 2an
Zatoz eta aprobetxatu aukera,
agortu aurretik

80€-ra arteko diru laguntza

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Loredi Salegik emakumeen autoestimua eta boteretzea lantzeko tailerra eskainiko du maiatzean eta ekainean

Elgoibarko Udaleko Berdintasun Sailak emakumeen autoestimua eta jabetasuna lantzeko ikastaroa antolatu du. *Ezagutu, onartu, baloratu eta maitatu zeure burua, zure bizitzaren jabe izateko* izenburua du ikastaroak.

Loredi Salegi elgoibartarrak gidatuko duen ikastaroa maiatzaren 4tik 25era eta ekainaren 1etik 15era bitartean egingo da. Tailerrak eguaztetenan izango dira, 18:30etik 20:30era, Meka Lanbide Eskolako Ezenarro eraikinean. Guztira hamalau orduko ikastaroa izango da, gartzeleraz.

Tailerra doakoa izango da. Hala ere Udalak jakinarazi du plazak mugatuak izango direla. Izena emateko Udaleko



Arreta Bulegora dei daiteke (943 741 050) edo e-posta bidez (*berdintasuna@elgoibar.eus*).

Autoestimuari buruz berba egingo dute ikastaroan, noiz eta nola osatzen

den, genero oztopoak emakumeen autoestimuan, emakumeen autoestimu baxuaren zergatiak eta sintomak, autoestimua lantzeko proposamenak eta jabetzea, besteak beste.

 **federópticos**
Ikus
 **audiocentro**
Ikus

Honako sintoma hauekoren bat baduzu?

-  Buruko mina
-  Ikusmen-nekea
-  Begietako azkura
-  Begi-keinua
-  Hatzamarrarekin irakurtzea

Bi begien azterketa eginez, antzeman dezakegu edozein ikusmen-difuntzio, eta tratamendua eman diezazukegu.



Jose Artetxe, 10
Tel.: 943 15 75 74 - AZPEITIA

Zigordia kalea, 7
Tel.: 943 133 151 - ZARAUTZ

San Bartolome kalea, 10
Tel.: 943 743 734 - **ELGOIBAR**



IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Dentista

Jarduerak: 08:00 - 22:00
Egunerako: 10:00 - 14:00

Familiaren Osasuna

Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

 Facebooken: Clínica Dental Irazabal
  Eta twitterren: @Clinicairazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abontze eta konpartze handiak eta finantziario egin hobak. GALDEGU



IRAZABAL

clínica dental

Julian Etxebarria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR

Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

“Erreka-zuloetatik jaistea askatasun sentsazioa da guretzat”

Daniel Arenas elgoibartarra eta Silvia Pineda bartzelonarra. Bikote dira eguneroko bizitzan, lanean eta kirolean. Elgoibartar askok ezagutzen du Daniel Arenasen kirol ibilbidea. Ehizan hasi, mendi lasterketan eta bizikletan ibili, erreka-zulo jaitsieran ibili eta kulturismoan goia jo ostean barrankoetan behera ari da berriz. Silvia Pinedak erreka-zuloen jaitsieran du esperientzia handiena, baina askotariko kirolak egindakoa da: piraguismoa, taekwondoa, eskalada, mendi bizikleta... Beren Zuzen Adventure enpresa erreka-zulo ikusgarrienen jaitsiera bertikalen gida prestatzen ari dira lana eta zaletasuna soka bakarrarekin lotuz.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

▶ DANIEL ARENAS ETA SILVIA PINEDA

ABENTURAZALEAK

♦ Daniel, kulturismoan aritzen zinen, orain, ordea, erreka-zulo jaitsierara pasatu zara. Zer dela-eta?

Daniel: Ehizan hasi nintzen, mendi maratoieta ibilitakoa naiz, eskalatzen ere, mendi bizikletan eta barrankoen mundu hau ere ezagutzen nuen. Gero, ordea, kulturismoan sartu nintzen bete-betean eta gimnasioak ere izan nituen. 2014an lehiaketak uztea erabaki nuen nekatuta nengoelako; oso kirol esklaboa da, oso muturrekoa. Beraz, berriz itzuli nintzen mendian korrika egitera, erreka-zuloetan ibiltzera...

Silvia: Erreka-zuloetatik, bertikaletatik jaistea askatasun sentsazioa da guretzat. Naturarekiko kontakturako, aurrez inor egon gabeko tokietara iristeko, barrankismoa egin ezean ezagutzea ezinezkoa den tokiak ikusteko aukera ematen digu barrankismoak. Eta modu horretan zibilizatiotik, presetatik, derrigorrezko eginbeharretatik deskonektatzea lortzen dugu.



◆ **Abentura enpresa bat daukazu eta proiektu berezi bat duzue esku artean. Zein da proiektu horren muina?**

D: Espainiako erreka-zulo jaitsiera bertikal handienak eta ikusgarrienak jasoko dituen gida bat prestatzen ari gara.

Nerbioiko jauziarekin, penintsulako altuenarekin, hasi ginen eta Mallorcan, Asturiasen eta Katalunian izan gara. Galiziarra joatekoak gara eta Valentzian ireki gabe dauden hainbat bide zabalduko ditugu. Biderik gehienak irekita daude eta barranko jaitsiera egitera joanez gero badaude gidak edo liburuak. Baina gu bertikaletan aritzen gara eta potente edo basatiagoak izanik ez dago horri buruz idatzitako informazio osaturik.

Erreka-zulo jaitsiera, labur azalduta, horma bat rappelean jaitea da. Baina horma edo erreka-zulo horiei gran bertikal izendapena emateko hainbat ezaugarri hartu ditugu kontuan besteak beste, zati-katutako 100 metro izatea edo 80 metro segidan. Espainian ez daude baldintza horiek betetzen dituzten asko. Euskal Herrian, esaterako, Nerbioiko jauzia da handiena: 200 metrotik gora ditu, baina ez dena segidan.

Beraz, pentsatu genuen interesgarria izan zitekeela bertikal horiek paperera ekartzea gida bat osatuz. Digitalean ere jaso nahi genuke eta saiatzzen ari gara dokumental bat ere prestatzen.

◆ **Zer izango da gida horren edukia?**

S: Bertikal bakoitzaren kokapena, GPS koordenadak, distantzia, desnibela, luzeera, rappel kopurua, nola prestatua dagoen, zenbat soka behar den... jasoko ditu. Horrez gain, jauzia dagoen tokiko inguruen berri ere emango dugu: bisita daitezkeen toki turistikoak, non jan edo lo egin daitezkeen... Dauden gidak osatzeko balio dezake gureak.

D: Orain arte egindako barranko jaitsierren gidetan, konturatu gara datuak ez direla erabat zuzenak. Esaterako, 10 metroko rappela zegoela esaten zuen tokian, zazpikoa dela ikusi izan dugu, besteek neurria badaezpada puzten zutelako eta beste gida batean beste hiru metroko diferentzia azaltzen da. Horrelakoetan alperriko soka asko eramaten da traban aldean. Sokek asko pisatzen dute eta jendeak soberan eraman ez ditzan gure gida zehatza izan dadin nahi dugu. Beraz, neurketak ere hala egiten ari gara,

Silvia koaderno batekin joaten da dena apuntatzen eta bertikala jaitsi orduko erreka-zuloaren plano moduko bat egiten dugu.

S: Gidarako informazioa jasotzeaz gain, hainbat bide berriz hornitzen ditugu gauza seguruagoekin hurrengo doana lasaia go ibiltzeko.

◆ **Erreka-zuloak egokituta daude jendea jaisteko?**

D: Oinarrizko baliabideak ipinita daude, baina guk ere material asko utzi dugu bertikaletan ipinita. Gu jaitsi behar ez bagara ere hurrengo doanarentzat arriskutsu gera ez dadin txapak aldatzen ditugu. Erreka-zulo bakoitzak ditu bere ezaugarriak eta burdinak eta osagarriak ezin dira edozein tokitan jarri. Materialetan asko gastatzen da eta horri aurre egiteko babesleak behar dira. Sokatan, esaterako, asko gastatzen dugu. Adibidez, 200 metroko jauzi baterako soka bikoitza behar da, asko hondatzen dira. Burdinak, arnesak, kaskoak... ere behar dira. Furgoneta ere prestatuta daukagu eta hamar hilabetean 30.000 kilometro egin dizkiogu.

S: Ubidea, kokapena, harri mota... hartu behar dira kontuan. Harkaitz batzuk, esa-

terako, zulatzen hasi eta erabat puskatzen dira. Leku bakoitza ezberdina da eta iritsitakoan jakiten da zer behar den.

♦ Gida prestatzen orain arte zenbat bertikaletan izan zarete?

S: Hamar inguru eta beste horrenbeste falta zaizkigu. Katalunian hiru, Asturiasen bat, Euskal Herrian lau (Nerbioiko 224 metroko jauzia; Goiuriko urjauzia eta Ubeiko urjauziak), Aragoian hiru, Kanariar irletan bi, Galizian bat eta Balear irletan lau. Hala ere, bisitatzen joan ahala aldatu edo gehitu ere egin ditugu batzuk interesgarriagoak edo politagoak iruditu zaizkigulako.

D: Taldean hiru gaude finkoak: Silvia eta biok eta Balear irltako Aitor Ruiz; eta beste bi ibiltari. Kanpora joaten garenean gustatzen zaigu bertikalak ezagutzen dituen jendearekin ibiltzea, beste modu batean mugitzen gaituztelako. Orain, esaterako, Galiziara joango gara eta hango gidariak lagunduko digu. Suhiltzaileren irakaslea da, eta asko kontrolatzen du. Kanariar irletan eta Mallorcan ere badauzkagu laguntzaileak eta Katalunian Silviak ezagutzen ditu.

♦ Nola aukeratu dituzue?

D: Hasieran, altuenak eta ikusgarrienak aukeratu genituen. Ura dutenak politagoak dira, noski, baina asko hain daudenez goian, eraketagatik edo harri motarengatik askotan lehor daude eta ez dira ikusgarriak. Erreka-zuloekin pentsatzu burura datorkigun ideia da ur mordo eta handik behera rappelatzen, baina hemen askotan ez da hori gertatzen. Nerbioiko jauziak, esaterako, gehienetan Aste Santura arte baino ez du urik izaten, gero ura iragazi eta lehortu eta itsusi gelditzen da.

Lehor egoteak arriskuak ere baditu. Izan ere, sokak eta aparatuak asko berotzen dira eta sokak harkaitzen aurka igurztean arriskua handiagoa da, beraz saiatzen gara aurrez sokak putzuren batean edo bustitzen. Sokak ez dira han uzten, burdinak, uztaiak, txapak dira han gelditzen direnak, bestela sekulako galera litzateke. Guk zorionez babesleak badauzkagu, baina... Horietako batzuek proposatu digute gure gida Europako bertikaletara zabaltzea, baina oraingoz nahikoa daukagu honekin.

*“Gidarako
barrankorik altuenak
eta ikusgarrienak
aukeratu ditugu.
Ura dutenak
politagoak dira”*

♦ Norentzat da gida hau?

D: Bertikalen kontua kirol honetan maila altua duten abentura zaleentzako da, urte askoan erreka-zulo jaitsiera egiten aritu eta zerbait gehiago bilatzen dutenentzat. Hasten ari den edo esperientziarik apenas duen pertsona bat ez nuke sekula bertikal batera eramango, ikaratzekoa baita soka batean zintzilik jartzea 200 metroko altueratik.

S: Hasten ari den jendeari ez dio atentzia ematen horrelako zerbaitek;



nahiago dute ur gehiago, salto egitea, txirristadak, jolastea... Bertikalen kontua teknikoagoa da, maniobra gehiago egin behar dira.

♦ Gida prestatzeaz gain, zuen abentura enpresaren bitartez, jendearekin bestelako jarduerak egiten dituzue, ezta?

D: Bai, eta gainera ez ditugu egin nahi beste edozein abentura enpresa egiten dituen jarduera arruntak. Ezinduekin lan asko egiten dugu, ikusmen urritasunak eta bestelako gutxitasun fisikoak dituztenekin. ONCerekin, esaterako, egin ditugu hainbat saio. Enpresekin ere aritu izan gara abentura ekintzen bidez lantaldeek bat egiteko. Gainera, legez gidari bakoitzarekin gehienez hamabi lagun joan daitezke eta gu bi gidari joaten gara sei lagunekin segurtasunarengatik eta gertutasunarengatik, horrela mendia, erreka-zuloak erakusten dizkiegu, baloreak...; hori da besteengandik ezberdintzen gaituena.

Orain bertikalen gidarekin ari bagara ere, edozein jarri daiteke gurekin kontaktuan www.zusenadventure.com webgurean eta presta genezake ibilaldi bat. Urte osoan barrena ibiltzen gara taldeekin erreka-zuloetan. Guk geuk ere egiten ditugu gure irteerak erreka-zulo jaitsierekin gozatzeko. Orain dela gutxi, esaterako, erreka-zulo alpino batzuetan izan ginen jende adituarekin eta asko gozatu genuen goian elurra egonik erreka-zuloan behera ur asko jausten zelako.

S: Erreka-zuloetan ibili den jendea ere etor daiteke, esperientzia izanik zertxobait zailagoa egin nahi duena eta talde txiki batean eraman ditzakegu toki zailagoetara eta horrela guk ere gozaten dugu.





I. URTEURRENA

Andres Ibarlucea Bereciartua

2015eko apirilaren 21ean hil zen, 83 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, maiatzak 1, eguerdiko 11:00etan, Etxebarriko Andres Deunaren elizan. Joango zaretenoi aldeztatik eskerrak.



Maritere Muruamendiaraz Bastarrika

2016ko apirilaren 23an hil zen, 77 urte zituela. Hileta elizkizuna zapatuan, apirilak 30ean, izango da, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldeztatik eskerrak.

**Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena**

Familiakoak




Manuel Rey Quiroga

"King Kong taberna"

2016ko apirilaren 27an hil zen, 78 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Beti izango zara
gure argia.**

Etxekoak



Elgoibarko AVS enpresako kideak pozik agertu dira, grabitaterik gabeko lehen simulazioen ostean

AVS enpresako kideak Bordelen izan dira aste honetan, grabitaterik gabeko simulazio batzuetan parte hartzen, Marteko ilargi batera bidali nahi duten zunda baten dispositibo bat probatzeko. Lehen eguneko hegaldiko emaitzarekin pozik azaldu da lan-taldea.

Simulazioak martitzenean hasi ziren, eta lan-taldeak beste bi egunetan jarraitzea aurreikusten zuen. Gaurko jakin ahal izango dituzte emaitzak. Hegaldi paraboliko hauen bidez AVSk Elgoibarren egin duen dispositibo bat grabitaterik gabe zelan dabilen aztertu nahi izan dute.

Europako Espazio Agentziaren proiektu garrantzitsu batean ari da lanean Elgoibarko AVS enpresa, 2020an Marteko ilargietako batera iristeko, Fobosera. Misio horrek zunda bat bidali nahi du Fobosera handik lur zati batzuk hartu eta gero aztertzeko. Espazioko zunda horrek beso bat erabiliko du Fobos ilargiko lurra batzeko. Beso hori Elgoibarko enpresan diseinatu eta eraikiko dute.

Proiektuak aurrera egiteko, grabitatearen inguruko froga gainditu beharko du AVSk. Izan ere, Fobos oso ilargi txikia da (20 bat kilometroko diametroa du), eta han dagoen grabitate maila oso-oso txikia



Aste honetan jardun du AVSk grabitaterik gabeko simulazioak egiten. Arg: AVS

da. Horregatik, enpresako zortzi kide Bordelen izan dira grabitaterik gabeko simulazio bat egiten. Zundaren besoa grabitaterik gabeko lekuetan ondo dabilen frogatzen dihardute.

Martitzeneko hegaldia egin ondoren, Miguel Angel Carrera AVSk zuzendari nagusia egindakoarekin pozik agertu zen. BARRENI esandakoaren arabera, dispositiboak modu egokian jaso zuen lurra grabitaterik gabe, lehen egunetan egindako


30 saioetan. Hurrengo egunetarako, baldintzak aldatu behar zituzten (lur mota, erreboluzioak, abiadura, emisio mota...).

Hegaldi parabolikoa egiteko hegazkin berezi bat erabili zuten. Hegaldi bakoitzean AVSk lau kidek parte hartzen zuten. Gune seguru batean, 45 graduko inklinazioz 8.000-9.000 metroko altuera hartzen zuten hegazkinak, gero erortzen lagatzeko. Erori aurretik, 23 bat segunduz, grabitaterik gabeko unean, lan egin arazten zioten dispositiboari.

Lau ordutan 30 jauzi

Hegaldi bakoitzak lau orduko iraupena lau ordukoa izan ohi da eta denbora horretan 30 jauzi paraboliko egin ohi ditu hegazkinak.

AVSk taldeak beste era bateko parabolak egiteko ere eskatu zien pilotuei, eta hori ere erronka berria izan da eskifaierentzat. Hasierako emaitzarekin, behintzat, pozik agertzeaz gain, bizipen berriak ezagutu ditu lan-taldeak hegaldiko momentu desberdinetan: 0 grabitate (airean flotatzea, alegia), grabitate normala eta grabitate bikoitza (75 kiloko pertsona batek 150 pisatzea).



Hegaldi parabolikoaren bidez lortzen dute 0 grabitatea.

Aitziber Dominguezek irabazi du danborradako kartel lehiaketa



Trinitate jaietako nagusien Danborrada iragartzeko kartel lehiaketa Aitziber Dominguez elgoibartarrak irabazi du. Danborradaren antolatzaile Atabal elkarteko Juan Karlos Arrietak jakinarazi duenez, bi lan baino ez dira aurkeztu aurtengo kartel lehiaketara. "Bi bakarrik, baina biak onak" zehaztu du. Aitziber Dominguezek aurkeztutako lanak jaso du lehen saria: 300 euro.

Lehiaketa hau estreinakoz irabazi badu ere, antzerako lehiaketetan sari bat baino gehiago irabazita da Dominguez. Esaterako, hiru urtean errenkadan irabazi zuen Elgoibarko San Bartolome jaiak iragartzeko kartel lehiaketa.

Herritar gehienak jadanik jakinaren ganean badude ere, aurtengo danborradan aldaketa nabarmen bat izango dela iragarri nahi du Atabal elkarteak. Izan ere, danborrada egun argiz egingo dute estreinakoz, 19:00etan hasita, hain zuzen ere.

Mekako ikasketak herritarrentzat ikusgai

Meka Lanbide Eskolak antolatutako lanbide heziketako astea izango da maiatzaren 2tik 6ra bitartean. Ikastetxe barruko ekintzez gain, kanpora begirakoak ere egingo dituzte. Maiatzaren 2an, 15:30ean bideokurrikuluma nola egin erakutsiko diete ikasle, ikasle ohi eta herritarrei Meka Ezenarroko 025 gelan. Martitzenean, Mekako galdaragintzako ikasleek Albitzuri eraikinean zartaginak, lapikoak, aitzurrak... konponduko dizkiete bertara eramaten dituzten herritarrei eta 10:00etan antzerkia eskainiko dute Haur Hezkuntzako irakasle ikasketak egiten ari direnek Haurreskolan eta Ikastolan eta Arreta teknikari ikastaldearekin kantuan eta jolasean arituko dira San Lazaro Egoitzan eta Eguneko Zentruan. Maiatzaren 5ean udaletxeko arkupean izango dira ekintzak. 9:00etan ibilgailu elektrikoekin inguruko aurkezpena egingo dute Mekako automozio ikasleek eta 12:00etatik 13:30era bitartean herritarrei Tentsioa hartuko diete erizaintza ikasleek. Maiatzaren 6a ate irekien eguna izango da Mekako bi eraikinetan. Orain arteko ikasketei buruzko informazioaz gain, hurrengo ikasturtean abian jarriko duten Integrazio Soziala zikloaren berri ere emango dute.

Alemaniko ikasleak izan dituzte bisitan Arreiturre institutuan

Urteroko ohiturari jarraituz, elkartrukea egin du Alemaniako Karlsruheeko 18 ikaslerekin Elgoibarko Arreiturre institutuak. Elgoibartarren etxean egon dira eta ikasteaz gain, inguruko txokoak erakusteko ere aprobetxatu dute egonaldia. Bilbon, Donostian, Deban eta Mutrikun izan dira besteak beste. Elgoibarko ikasleak Alemaniara joango dira ekainaren 8an eta bost edo sei eguneko egonaldia egingo dute han.



Atxutxiantxixika proban ehun umek hartu zuten parte

Haur Hezkuntzako ia 100 umek Atxutxiamaiaka aisialdi taldeak antolatutako Atxutxiantxixika proba egin zuten domekan. Atxutxiamaiakako hezitzaileen gidaritzapean giharrak berotu, saltaka egiteko buruko zintak egin eta buruan jarri ondoren prest ziren antxixikarako. Kalegoen plazan abiatu eta San Bartolome eta Errosario kaleetan barrera egin zuten korrika, berriz plazan amaitu arte.



Gaur hasiko dira Kiribilduz egitasmoko udaberriko ekintzak



Familiaren bitartez euskararen transmisioan eragiteko Kiribilduz programa jarri zuen abian Atxutxiamaikak Elgoibarren 3 eta 8 urte arteko umeak dituzten familietan euskararen eta euskal giroaren aldeko jarrera positiboa indartuz. Hainbat motatako saioak egiten dituzte, gehienak barixaku arratsaldeetan. Atxutxiamaikak dinamizatzen dituen kantu, dantza eta jolasak izaten dira batzuk edo kanpotik ekarritako bestelako ikuskizun edo jarduerak besteak. Barixakuetako jardueraz gain, asteburuetak beste hainbat eskaintza ere egiten ditu Atxutxiamaikak Kiribilduzen baitan.

Udaberrian sartuta Kiribilduzek ere martxan jarriko du bere egitaraua gaur, barixakua, 17:30ean Kultur Etxeko sotoan. Lehenengo jarduera txotxongilo erraldoi eta zuzeneko musikarekin egingo duten Trapujale ikuskizuna izango da.

Ekogunera irteera

Datorren astebururako beste bi jarduera antolatu dituzte. Barixakuan, ekainaren 6an Kiribilen ikuskizuna izango da Maalako parkean, 17:30ean, umeak girotzeko. Bestalde, Ekogunera familia irteera iragarri dute zapaturako. Bertan, naturarekin jolasteko eta ikasteko aukera izango dute besteak beste baratza ekologikoa ezagutzeko eta haur-parkean jolastuz. Irteerarako izena eman nahi dutenek www.elgoibarkoizarra.eus helbidera jo behar dute.

Kiribilduzen udaberriko egitarauaren baitan, maiatzaren 13an eta ekainaren 10ean Kiribilen ikuskizunak izango dira Maalan; maiatzaren 29an, Familia Eguna San Pedron; eta ekainaren 11n eta 12an familientzat asteburuko egonaldia Hondarribiko aterpetxean. Maiatzaren 9an irekiko da azken horretarako izena emateko epea.

Udako txokoetan izena emateko epea zabalik

Atxutxiamaikaren eta Ludotekaren udaldiko eskaintza bateratuaren osagarri gisa, Elgoibarko Izarrak, goizetarako (9:00-13:00) txokoak eskainiko ditu. Ekainaren 22tik 24ra, 36 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 32 euro), eta uztailaren 26tik 29ra bitartean 48 euro (Elgoibarko Izarrako bazkideek 43 euro) izango dira. Ekainean, gainera, egun solteetan izena emateko aukera egongo da (eguna, 12 euro). Izena emateko epea maiatzaren 2tik 10era artekoa izango da eta bi modutara egin daiteke. Internet bidez www.elgoibarkoizarra.eus webgunean edo Elgoibarko Izarrako bulegora (Ubitarte, 4 behe) joanda.

Baseri mugikorra hil amaierako azokan

Gapatuan, apirilaren 30ean, hileroko baserriar azokako ohiko eskaintzaz gain, tailer berriren bat jarriko dute oraingoan: umeentzako baserri mugikorra. Txikienek inguruko animaliekin gozatu ahal izango dute han: ardiak, ahuntzak, untxiak, pottokak, usoak, oiloak, *minipig* txerri txoak, artzain-txakurrak, antzarak, ahateak... Nola bizi diren, zer jaten duten, nola zaindu behar diren eta zein elikagai ematen dituzten ikasiko dute. Kale kantarietara ere, hilabeteko etenaren ondoren, berriz arituko dira kaleak kantuz girotzen 12:00etan Kalebarrenetik abiatuta.

Menditxo irabazle pintxo lehiaketan

Joan den asteburuan pintxo lehiaketa izan zen Mendaron eta epaimahai teknikoak Menditxo tabernari eman dio lehen saria Mendibost pintxoaren truke; bigarrena Aitz Beltzi atun piperradarengatik eta hirugarrena Toki Alairen otarrainxka bildua. Epaimahai herrikoiak ere hirugarren hau aukeratu du. Bozkatu duten herritarren artean zozketa egin dute eta Naroa Zubia eta Goiatz Andonegi izan dira zortedunak. Sari banaketa, udaletxean izango da maiatzaren 3an, 19:00etan.

Egur arte tailerrak erakusketa jarriko du

Ikasleen lanak jarriko ditu ikusgai Egur arte tailerrak maiatzaren 6tik 14ra bitartean Kultur Etxean. Oleoak, umeen marrazkiak eta margolanak eta labeko esmalteak egongo dira besteak beste. Erakusketa inauguratu ondoren, astelehenetik zapatura bitartean 18:30etik 20:30era egongo da. Maiatzaren 14an bertan, V. Kaleko Margo Lehiaketa egingo dute Elgoibarren eta margo lan horiek Kultur Etxeko sotoan ikusteko aukera izango da.

Gabazek Donibaneren aurkako partida erabakigarriajokatuko du domekan



Gabaz, Sanloko senior gizonezkoen bigarren taldea, Euskal Ligako 2. Nazional Mailako igoera fasea jokatzen ari da beste bost talderen aurka: Haritza Eibar, Donibane, Mungia, Muskiz eta Galdakao. Aurreko asteburuan jokatu zuten estreinako partida Ipuruan eta 21-28 irabazi zuten Haritza Eibar taldearen aurkako derbia. Domekan jokatuko du igoera ligaxkako bigarren partida, Pasaiaiko Donibane taldearen aurka, Olaizaga Kiroldegian, 11:30ean. Irabaziz gero, azken fasea jokatzeiko aukera handiak izango lituzke Gabazek, eta hori dela-eta, domekan Olaizagara hurbiltzeko deia egin die Sanlok zaleei.

Gabaz taldeaz gainera, Sanloko beste talde batzuk ere ari dira nabarmentzen. Sanloko infantil nesken mailako Cometel eta Dario Bus taldeek, esaterako, Gipuzkoako txapelketako finalurrekoak jokatzeiko sailkatu dira, txapelketa amaitzeko bi partidaren faltan. Kadete eta jubenil mailetako nesken taldeek ere Lurraldeetako txapelketak jokatuko dituzte asteburuan Ermuan, eta, mutilek, berriz, Berangon 5).

Sanloko joklariak Gipuzkoako selekziara

Taldeka ez ezik, banaka ere maila handia erakusten ari dira Sanloko joklariak eta Gipuzkoako eskubaloi selekzioarekin jokatzeiko deitu diete zenbait joklari. Jubenil nesken mailako hautatzaileak lau joklari elgoibartar deitu ditu: June Loidi, Amaia Rubio, Sarai Sanchez eta Maria Balsategi.

CD Elgoibarren paella jana

Futbol denboraldia amaitzeko paella jana antolatu du CD Elgoibarrek maiatzaren 28rako. Hestebeteak, paella, postrea, kafea, kopa eta ardoa eskainiko dituzte, 15 euroan (6 euro gazteek), Maalako parkean. Bazkaria ez dago klubeko bazkideei mugatua. Bazkarirako txartelak Jai Alai, King-Kong eta klubaren Mintxetako bulegoan erosi daitezke, maiatzaren 23a baino lehen.

**Mendaroko
Haurreskola**

Garagartza, 5
943 755 219



**Matrikulazio epea zabalik
maiatzaren 2tik 11ra**

Kirol Kanpusean izena emateko epea zabalik dago



Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak antolatzen duen Udako Kirol Kanpusean izena emateko epea zabalik dago, eta ekainaren 3a baino lehen eman behar da izena Olaizaga kiroldegian. Aurreko urteetan bezala, bi mailatan banatuko da kirol udalekua: Haurren Kirol Kanpusa, 2009 eta 2005 urte bitartean jaiotako haurrei zuzendua, eta Goi Mailako Kirol Kanpusa, 2004 eta 2001 urte bitartean jaiotako gazteentzat. Azken horretan, teknikoki eta fisikoki exijentzia handiago izango dute gazteek. Udako Kirol Campusak ekainaren 27tik uztailaren 22ra bitartean egingo dute, asteleheneretik barixakura, 9:30etik 12:30era.

Bilbo-Bordele martxa zikloturistakoek Mendaron egingo du hamaiketako



Bilbo eta Bordele hirien artean dauden 445 kilometroak batuko ditu Bilbao-Bordeaux nazioarteko martxa zikloturistak, maiatzaren 5etik 7ra bitartean, hiru etapatan. Bilbotik abiatuko den 147 kilometroko lehen etapari Mendaron egingo dute geldialdia txirindulariek, Mendaroko Goñati frontoian hamaiketako egiteko, hain justu ere. Aurreikuspenen arabera, Elgoibartik pasa ostean, 12:30ak inguruan ailegatuko dira Mendarora. Donostian amaituko da lehen etapa.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 2 – Touring 1 (Oho. Erreg.)
 Elgoibar 4 – Beti Ona 0 (1. Erreg.)
 Intxurre 5 – Elgoibar 0 (Jubenilak)
 Elgoibar 3 – Urola 0 (A Kadeteak)
 Arrasate 0 – Elgoibar 2 (B Kadeteak)
 Hondarribia 3 – Elgoibar 1 (Oho. inf.)
 Elgoibar 3 – Ordizia 2 (Inf. Txiki)
 Elgoibar 5 – Hondarribia 2 (Ale. errend.)
 Elgoibar 6 – Aretxabaleta 5 (Ale. parte hartzea)

ARETO FUTBOLA

Colo Colo 7 – Concepto Egile 0 (Nazional B)

SASKIBALOAIA

Viento Sur Elg. 37 – Grupo EME Oiarso 67

ESKUBALOAIA

Bera Bera 26 – Lauko Elg. 30 (Senior emak.)
 Alcorta Forging Group 25 – Ereintza 23 (Senior giz.)
 Haritza 21 – Gabaz Elg. 28 (Senior giz.)
 Eibar 18 – Pneumax 31 (Kad. nes.)
 C. Astigarraga 23 – Bera Bera 25 (Kad. nes.)
 Deca 39 – Pulpo 40 (Kad. mut.)
 Bankoa 30 – Amenabar A 27 (Kad. mut.)
 Oñati 16 – Cometel 19 (Inf. nes.)
 Ereintza 10 – Dario 20 (Inf. nes.)
 Usurbil 15 – F. Ikus 13 (Inf. nes.)
 Txarriduna 30 – Bidasoa C 7 (Inf. mut.)
 Murgil Elg. 35 – Udarregi A 18 (Inf. mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 30
 12:00 Elgoibar – Idiazabal (Inf. txiki)
 16:00 Elgoibar – Gure Txokoa (1. erreg.)
 18:00 Elgoibar – Mondragon (Oho. jub.)
 Domeka, 1
 11:00 Elgoibar – Real Union (Oho. inf.)
 12:30 Elgoibar – Bergara (1. Kad.)

ESKUBALOAIA (Olaizaga Kiroldegian)

Barixakua, 29
 18:30 Beristain – Eibar (Jub. mut.)
 Zapatua, 30
 10:00 Federopticos Ikus – Urola (Inf. nes.)
 Domeka, 1
 17:30 Gabaz Elg. – Donibane (Senior giz.)

ESKUBALOAIA (IMH Kiroldegian)

Zapatua, 30
 17:30 Lauko Elg. – Egia (Senior emak.)

LANA.....
Eskaerak

Lan bila. Lorezaintzan, megafoniar eta hoteleko arropa garbiketa, lisaketa eta tolestean esperientzia. 631 590 791

Adinekoak zein umeak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Esperientzia eta erreferentzia dauzkat. 678 112 785

Adinekoak zein umeak zaintzen edo garbiketa lanetan aritzeko prest. Erreferentziak dauzkat. 634 627 696

Sukalde laguntzaile, edo nagusiak zein umeak zaintzeko prest. 631 562 380

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo egun osoan zehar. 616 608 781

Adinekoak zaintzen eta etxeko, elkarte- eta atarietako garbiketan lan egiteko prest. 617 571 210

Umeak zein nagusiak zaintzeko prest. Aukeran, gabez edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak dauzkat. 631 974 374

Ume edo nagusiak zaintzeko prest gabez edo asteburuetan. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 632 573 554

Lan bila. Garbiketan, adinekoak eta umeak zaintzen... 631 418 130

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. Orduka zein interna. 628 738 472

Lan bila. Garbiketan, nagusiak eta umeak zaintzen... 602 573 072

Lanerako prest: Adinekoak zaintzen, portalak eta tabernak garbitzen... Orduka. 631 790 555

Geriatría laguntzailea naiz eta adinekoak zainduko nituzke. Orduka lan egiteko eta paseora ateratzeko prest. Prestutasun osoa. 646 931 162

Igeltsero zein garbiketa lanetarako edo adinekoak zaintzeko prest. Bestelako lanetarako ere gertu. 632 459 224

Etxe zein portaletako garbiketak, buzoietarako banaketa, zein obra laguntzaile lanetarako prest nago. 631 162 014

Buzoietarako banaketa zein obra laguntzaile lanak egiteko prest. 602 865 324

Adinekoak zaintzeko zein sukalde laguntzaile aritzeko prest. Orduka edo interna. 631 153 274

Adinekoak zein umeak zainduko nituzke, baita ospitalean zaintza lanak egin ere. Esperientzia eta diploma dauzkat. 671 989 434

Adinekoak zaintzeko prest. Interna moduan ere. Arduratsua, esperientziaduna eta baimenak indarrean. Erreferentziak onak. 631 681 516

Adinekoak zaintzeko prest orduka zein etxean bertan bizi izaten. Arduratsua naiz. 612 278 600

Adinekoak zaintzeko prest. Interna moduan ere. Esperientzia eta erreferentziak onak. 631 925 362

Umeen zaintza, garbiketa eta sukalde laguntzaile lanak egingo nituzke arratsaldez. 654 304 337

Adineko zein umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. 616 833 195

Lan bila nabil. 29 urte. Esperientzia. Ohituta nago lanean. 612 216 458

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. 620 152 595

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. 684 374 971

Lan bila. Interna edo adinekoak zaintzen. 642 267 113

Eskaintzak

Esperientziadun sukaldaria behar da Elgoibarko taberna baterako. Bidali kurrikuluma taberlan@gmail.com helbidera.

Epe motzean, Ilunpe taberna hartzeko prest dagoen norbaiten bila gabiltza. Informazio gehiagorako, tabernan galdetu edo deitu 943 254 252 edo 645 599 810 zenbakietara.

Mekanikaria behar dugu. Ajuste eta muntai mekanikoan ibilia. Bidali kurrikuluma Zarauzko 309 posta kutxara.

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Etxebizitza salgai. 88 metro koadro erabilgarri. Hiru logela, egongela, sukaldea, bainugela. Berrituta. Errosario kalean. 170.000 euro. 647 438 640 edo marlboro67@hotmail.es

GARAJEAK.....
Salgai

Garaje itxia salgai edo alokagai. 103 metro koadro, 4,10 metroko altuera, biltegi moduan erabiltzeko egokia. Autokarabanak sartzen dira. Olasopen. 661 827 292 (arratsaldez deitu)

KINTADAK.....

1961ean jaiotako kintada maiatzaren 14an. 12:30 etan Kalegoen Plazan. Luntxa Tantan. Bazkaria Sigman. 60 euro. Izen ematea maiatzaren 10a baino lehen. Laboral kutxa: 3035 0007 28 0071131982.

1971n jaiotako kintada maiatzaren 28an. 12:00etan luntxa Tantan. Bazkaria Karakate jatekian. 50€. Izena emateko azken eguna: maiatzak 20. ES0521002414130200096268

1954an jaiotako kintada ekainaren 11n. 13:00etan harrera-luntxa Usan. Bazkaria Sigman. 50€ Laboral Kutxa 3035 0007 21 0071056285. Izen ematea: maiatzaren 27a baino lehen.

BESTELAKOAK.....

Katu eme pertsu galdu da San Roken. Beltza, begi horiek. Inork ikusiz gero, deitu, mesedez. 657 797 016



P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Nire etxetxabeen-elkartean, hainbatetan, galdetu izan da eskailera-buruetan dauden suaren kontrako atek giltzarekin itxita egon behar duten ala ez. Bizilagun batek dio irekita baleude eta sute bat egonez gero, aseguru etxeek ez luketela horren ardura hartuko. Beraz, jakin nahi nuke atea horiek zabalik ala itxita egon behar diren.

Autonomia erkidego bakoitzak, eta hainbat kasutan herri bakoitzak, araudi berezia izaten du suteen aurkako babesari dagokionez. Garajea sute sektore independentea da, eta derrigorrez sarreretan suteen aurkako ate bikoitza izan behar da. Sarbideak ebakuazio ibilbidea osatzen du, beraz, atek, ebakuazio noranzkoan, garajetik kanporakoa behar du eta ez alderantziz, eta irekitzeko mekanismo erraza eduki behar du. Aurreikuspen horiek kontuan izan behar dira giltza jartzeko orduan.

Legearen arabera, sutea gertatuz gero, ebakuazio ibilbide guztian barrena, sarreretan eta pasabideetan atek eraisgarriak izan behar dute, giro bertikaldun ardatzarekin, eta modu errazean ireki eta ixtekoak. Beraz, gomentatzen da atek irekitzeko mekanismoak ahalik eta arriskurik gutxien eragitea erabiltzaileak aurrera eta atzera dabiltzanean.

AHOLKUA: Atek berez itxita egon behar du, kasu honetan segurtasun arrazoiengatik suterren bat egonez gero etxebizitzekin komunikatu ez eta eskaileretan gelditu dadin. Beti ere kontuan hartuz norbaitek ate hortatik irten nahi badu irekitzeko mekanismoa samurra izan behar dela, beraz, ez dela giltzarekin itxita egon behar.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



administradores

Centro Puro de Estudios
Administrativos de España
Instituto de Administradores
de España




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Iñaki**, zure urtebetetzean, etxeko guztion partez.



Zorionak, **Nadeth!** Muxu haundi bat amaren partez.



Zorionak **Tomasa San Martin**, eguaztenean urteak bete zenituelako. Muxu handi bat Patriciaren partez.



Zorionak, **Ane!**, Gure sorginak 4 urte haundi. Muxu haundi bat familiaren partez.



Zorionak, **Ekain!** Azkenean iritsi da egun handia. Gozatu ezazu!



Zorionak, **Enara**, gure etxeko dantzari alaiari. Igandean 7 urte! Muxuak denon partez.



Zorionak, **Martin**, igandean 2 urte. Marrubizko muxuak bereziki intzaren partez. maite zaitugu bihurri!!!



Zorionak, **Eilene**, zure 4. urtebetetzean, izugarri maite zaitugun amona, guraso eta izeba-osaben partez



Zorionak, mutikote. Ze haundi zauden **Urko!** Dogoeneko 8 urte! Muxu haundi bat familiaren eta bereziki Kaieten partez.



Zorionak, **Unax**, zure 8. urtebetetzean. Ondo pasa eta muxu handi bat etxekoen eta bereziki Oierren partez.



Zorionak, **Nerea**, domekan zure urtebetetzea! Muxu haundi bat familiaren eta batez ere Nora eta Ibairen partez.



Zorionak, **Aritz eta Elixabet**. Ondo pasa ezazue biharko egun berezi horretan. Familiaren partez.

A. Garate
Era guztietako igeltzeritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar
610 226 651

Erretratu bakarreko agurra:
4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

MAIATZAN 1
EUSKAL HERRIA PREKARIETATEAREN KONTRA
LANGILEOK MARTXAN ESKUBIDEAK AKTIBATUZI
ESKUALDEKO MANIFESTAZIOA EIBARREN
18:00ETAN UNTZAGA PLAZATIK
ONDORREN BUNTALDIA ETA HERRI BAZKARIA 18:00ETAN!
UNTZAGAKO ARKUPETAN
TXARTELAK SALDAI LABEREN EBARREN EGOTZAN-
BIDEARRIETA- 1
943 830 480
LAB

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio
www.uzurioptika.com

ESKAINITZA BEREZIA
eguzkitako betaurreko graduatuak
68€ tik hasita
PROGRESIBOAK
199€ tik hasita

RPS 183/12

29 BARIXAKUA

17:30 Kiribilduz. Trapujale, txotxongilo erraldoi eta zuzeneko musikarekin. Kultur Etxeko sotoan.

20:30 Antzerkia: *Kreditua*. Tanttaka teatroa: Zuhaitz Gurrutxaga eta Joseba Apaolaza: Herriko Antzokian.

30 ZAPATUA

9:00-14:00 Baseriko produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

10:00-14:00 Ikastaroa: sukaldaritza natural, energetiko eta begano tailerra. Antolatzailea: Mendaroko kontsumo taldea. Irakaslea: Marta Francisco. Mendaroko gaztetxean. Ikastaroaren ondoren bazkaria.

11:00 Pintxoak Elgoibarko baserri eta harategietako produktuekin. Skull Drivers taldea. Kalebarren plazan.

11:00 Edoskitze tailerra. Antolatzailea: Maitasunez hezi. Kultur Etxean.

12:00 Kale kantariak. Kalebarren plazan hasita.

12:00-14:00 Baserri mugikorra, ume-entzako tailerra. Kalebarren plazan.

Eguerditik arratsaldera Ganadu erakusketa. Aita Agirre plazan.

2 ASTELEHENA

15:30-17:00 Tailerra: Nola egin bide-okurrikuluma. Ikasle, ikasle ohi eta herritarrentzat Meka Ezenarroko 025 gelan.

3 MARTITZENA

9:00-13:00 Zartagin, lapiko. aitzur... konponketa. Mekako galdaragintzako

ikasleak. Herritarrentzat. Meka Albitzuri eraikinean.

10:00-12:00 Antzerkia. Haur Hezkuntzako irakasle ikasketak egiten ari direnek. Haurreskolan eta Ikastolan.

10:00-12:00 Jolasak eta kantuak. Arreta teknikari ikastaldearekin. San Lazaro Egoitzan eta Eguneko Zentruan.

11:00 Meza: Santa Kruz eguna ospatzeko meza. Ondoren, lurak bedeinak-tuko dira. San Roke auzoan.

5 EGUENA

9:00-13:30 Ibilgailu elektrikoaren inguruko aurkezpena. Mekako automozio ikasleak. Udaletxeko arkupean.

11:30-13:30 Bilbo-Bordele martxa zikloturistako txirrindulariek hamaiketako. Mendaroko Frontoian.

12:00-13:30 Tentsioa hartzea. Mekako erizaintza ikasleak. Herritarrentzat. Udaletxeko arkupean.

6 BARIXAKUA

9:30-13:00 Ate irekiak inguruko ikastetxeentzat. Meka Ezenarro eta Meka Albitzuri eraikinak.

9:00-19:00 Ate irekiak interesatuentzat, familientzat, langabetuentzat... Meka Ezenarro eta Meka Albitzuri eraikinak.

17:30 Kiribilen ikuskizuna. Maalako parkean.


18:30 Erakusketa: Egur arte tailerra. Ate-lehenetik zapatura 18:30etik 20:30era. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

21:30 Zine-foruma: *Una canción para Marion*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Antolatzailea: Haizea. Kultur Etxean.

Zinea (Herriko Antzokian)

'La habitación'

30 Zapatua, 19:00 eta 22:15 (Jatorrizkoa azpituluekin)
1 Domeka, 19:00
2 Astelehena, 21:30



'El cuento de la princesa Kaguya'

1 Domeka, 16:30



HERRI URRATS 2016 SENPEREN

Bernat Etxepare Lizeoa, Baionako ikastola!

Maiatzak 8, igandea

Autobusa antolatu dugu Iparraldeko ikastolei lagundu, egun zoragari bat pasa eta gure euskaltasuna aldarrikatzeko.

Irteera: 09:00
(Sigmako autobus-geltokia)

Izuzleraz 19:30

Pretzia: 13 euro
(Elgoibarko Iazarran bazkideek 12 euro)

Autobuscan joateko izena
Elgoibarko Iazarran eman behar da:
azken egunez maiatzak 5.

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

9:00 - 22:00

29 Barixakua YUDEGO
30 Zapatua ORUESAGASTI
1 Domeka ORUESAGASTI
2 Astelehena BARRENETXEA
3 Martitzena IBAÑEZ
4 Eguaztena GARITAONANDIA
5 Eguena ETXEBERRIA
6 Barixakua FERNANDEZ

22:00 - 00:00

Astelehenerik domekara
ETXEBERRIA (Elgoibar)
Santa Ana, 1
Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)
Fermin Calbeton, 19
Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9
(Soraluze)
Tel.: 943 751 384

Telefono interesgarriak

Elgoibarko Izarra..... 943 741 626
Udalzaingoa.....943 741 394
Udalaren areta bulegoa.....943 741 050
Udaleko idazkaritza.....943 743 700
Bake epaitegia.....943 741 630
Gizarte Ongizate saila.....943 741 008
Hirigintza.....943 744 384
Mankomunitatea.....943 700 799
Debemen.....943 744 067
Artekaritza (Hazienda).....943 744 414
Berdintasan saila943 741 050
Euskara saila.....943 744 366
Kultura saila.....943 742 158
Udal liburutegia.....943 743 525
Gazteria saila.....943 531 319
Gazte informazio gunea.....943 257 986
Ludoteka.....943 748 883
Gaztelekua.....943 743 228
Enplegua/Merkataritza.....943 741 050
Emugi.....943 747 371
Kirolegia.....943 744 415
Mintxeta.....943 747 356
Musika eskola.....943 742 145

Udal euskaltegia.....943 742 731
AEK euskaltegia.....607 601 423
KZgunea.....943 023 640
Jubilatuon biltokia.....943 740 526
San Lazaro egoitza.....943 740 296
Eguneko zentroa.....943 744 565
Kontsumo bulegoa.....943 743 088
Taxi geltokia.....943 740 898
Larrialdiak.....112
Gurutze gorria.....943 743 864
Eusko tren.....902 543 210
Pesa.....902 101 210
Correos - Posta.....943 741 547
Mendaroko Udala.....943 033 282
Liburutegia.....943 033 291
Bake Epaitegia.....943 033 289
Eguneko Zentroa.....943 031 746
Mendaro Ikastola.....943 756 141
Haurtzaindegia.....943 755 219
Musika Eskola.....943 244 275
Taxi607 57 57 28
Ospitalea.....943 032 800

Garazi Sampedro Arando
RPS 169/15
ERROSARIO
ERROSARIO, 7
Elgoibar
943 743 679
HAGIN KLINIKA

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

Mari Jose Ruiz Porres
Doktorea
GINEKOLOGOA
R.P.S. 82/15
Madima Radiologia
Toribio Etxeberria 4, 1 - Eibar
Tel.: 943 202 857
mj.ruizporres@gmail.com

Jeku edero
hertz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behe
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

aldaz
hertz klinikak
RPS 233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirok Berregokitzea
Trombido kalea, 13
943 740 191 / 667 943 628
www.Fisio-mas.com
RPS 122/18

CLINICA DENTAL
ELIZPE
HORTZ KLINIKA
RPS 88/15
Elizburu, 3 - SORALUZE
Tel.: 943 752 567
Astelehenerik ostiralera
10:00-13:00 / 16:00-20:00
e-mail: elizpe30@gmail.com



Jose Luis Azpillaga

Hara hor ere, sarrerako atearen gaineko eskulturak! San Bartolome nola larrutzen duten ikus daitezke. Barruko erretaulan argi-argi ikusten da –argiegi, agian?–. Baina, hara non, kanpoan ere martirioaren irudia! Ikusi gabea nengoen. A zer nazka! Nolako harridura eta ulertu ezina! Zeinen deserosoa, eta, hala ere, ezin baztertu begirada eszena lazgarri horretatik! Baina, nola liteke? Zer dela-eta horrelako krudelkeria? Nola egin lezake gizakiak horrelako torturarik?

Zenbat halako izugarrikeria ikonografia erlijiosoan: Santa Agedaren martirioa, San Sebastianena, Jesusena berarena gurutzean... . Eta, ez al dira antzeko sentimenduak gaur egun komisaldegietako torturek eta azken atentatuetako heriotzek sorrarazten dizkigutenak? Nolatan dira atentatugileak eta politziak horrelakoak egiteko gai? Zergatik? Inork aginduta ere, zergatik bete horrelako agindu krudelak?

Baina, itxaron! Itzul gaitezten berriro elizako eskulturara! Ez al dira San Bartolomeren aurpegia eta ezkerreko torturatzailarena berdin-berdinak? Zer esan nahi ote du horrek? Eskulturagileak zergatik egin zituen bi aurpegi berdin-berdinak? Akaso esan nahi ote zigen denok izan gaitezkeela noizbait biak: torturatua eta torturatzaila?

Aspaldi ohartarazi zigen Stanley Milgran psikologoak obedientziaren arriskuez. Bere esperimendu ezagunaren ondorioa izan zen gizaki gehienok ankerkeriaz jokatzeko gai garela autoritateren batek esaterako, zientziak- hala eskatzen badigu. Ez ote da antzeko zerbait gertatu, urrutira joan gabe, gure inguruan ere? Zenbat astakeria ez ote dira egin, idealen baten edo erlijioaren aitzakian, buruzagiren batek edo apaizen batek agindu duelako bakarrik?

Beldurra ematen du, eta zer pentsatua ere bai!



Iñigo Lamelas

“Zenbat astakeria ez ote dira egin, idealen baten edo erlijioaren aitzakian”


ERRENTA2015

ZERTAN INBERTITZEN DU ALDUNDIAK ZURE DIRUA?

Ekonomiaz, garapenez, aberastasuna sortzeaz eta gliza ongizateaz haratago, Gipuzkoa hazten jarraitzeko zergak biltzeaz haratago, orain, jartzen duzun euro bakoltza zugar Inbertitzen dela ulertzeko momentua da. **Orain Gipuzkoa.**

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO
URTEKO AURREKONTUA

812M€





Elgoibar-Arreiturre BHI

2016-2017 Batxilergoako aurrematrikulazioa:
Maiatzaren 2tik 12ra

BATXILERGOA (BH)

Giza eta
gizarte
zientziak

Zientziak

Artea

- Gizarte zientziak
- Humanitateak

- Osasun Zientziak
- Zientziak eta teknika

- Musikala

INFORMAZIO BILERA GURASOENTZAT:
MAIATZAREN 3AN, 18:00ETAN,
INSTITUTUKO ARETOAN (MEKA ERAIKINA)

943 748 397
013431@hezkuntza.net
www.elgoibarbhi.eus

